

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 306

*EBAZPENA, 2016ko abenduaren 21ekoa, Farmaziako zuzendariarena, Zarautzen (Gipuzkoa) farmazia-bulego bat irekitzeko baimena emateko dena.*

Zarautzen (Gipuzkoa) farmazia-bulego bat irekitzeko, Marta Gaminde Campos andreak egin duen baimen-eskaera aztertuta, eta honako hauek ikusita:

### GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Osasuneko sailburuaren 2015eko martxoaren 13ko Aginduaren bidez, iragarri zen Zarauzko farmazia-barrutian farmazia-bulego berri bi irekitzeko prozedurari ekin zitzaiola.

Bigarrena.– Farmazia-bulego horren titulartasuna eskuratzeko Merezimenduak Balioesteko Batzordeko kideak izendatu eta egin beharreko legezko izapideak egin ondoren, 2015eko azaroaren 25ean batzorde horrek hartutako erabaki baten bidez, lehiakideen behin betiko zerrenda onartu zen, puntuazioaren hurrenkerari jarraituz; erabakia 2015eko abenduaren 3ko EHAA-n argitaratu zen (231. zenbakia).

Zerrenda horretan, Begoña Dúo Uriarte andreak zeukan puntuazio altuena.

Hirugarrena.– Erabaki hori irmo bihurtu zen 2016ko urtarrilaren 27an.

Laugarrena.– 2016ko otsailaren 3an, Begoña Dúo Uriarte andreak baimen-eskabidea aurkeztu zuen, Vitoria-Gasteizen farmazia-bulego bat irekitzeko zena; hortaz, ulertu zen uko egiten zuela Zarauzko farmazia-barrutikoari dagokion prozedurari.

Bosgarrena.– Prozeduran aurrera eginez, 2016ko otsailaren 4an ofizioa bidali zion Farmaziako zuzendariak María Josefa García-Agundez Pérez-Coca andreaki. Ofizioan adierazi zitzaion bera izan zela alegatutako merezimenduen balorazioan puntuaziorik handiena lortu zuena eta, hortaz, 338/1995 Dekretuak, Farmaziak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituenak, 5. artikuluan xedatutakoarekin bat jokatu behar zuela. Ohartarazi zitzaion deialdian parte hartzeari uko egiten ziola ulertuko zela, eskatutako agiriak dekretu horretan ezarritako epean aurkeztu ezean.

Seigarrena.– 2016ko apirilaren 1eko gutunaren bidez, María Josefa García-Agundez Pérez-Coca andreak jakinarazi zuen ezen, uko egiten ziola Zarauzko farmazia-barrutiari dagokion prozeduran jarraitzeari.

Zazpigarrena.– 2016ko apirilaren 1ean, Farmaziako zuzendariaren ofizio bidez Blanca Esparza Echarri andreaki jakinarazten zaio ezen, Zarauzko farmazia-barrutian bi farmazia-bulego irekitzeko prozedurari dagokionez, behin betiko zerrendan puntuazio handieneko lehiakidea dela; eta ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat jokatu behar zuela; Farmaziak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen ditu dekretu horrek.

Zortzigarrena.– 2016ko ekainaren 2an, Blanca Esparza Echarri andreak Zarautzen farmazia-bulego bat irekitzeko eskabidea aurkeztu zuen, 338/1995 Dekretuaren babesean, eta dekretu horren 5. artikuluan aurreikusitako agiriak erantsi zizkion eskabideari.

2017ko urtarrilaren 19a, osteguna

Bederatzigarrena.– 2016ko uztailaren 8an argitaratu zen EHAAn Farmaziako zuzendariaren 2016ko ekainaren 27ko Ebazpena. Horren bidez, baimena ematen zaio Blanca Esparza Echarrri andreari farmazia-bulego bat irekitzeko Zarautzen (Santuiturri kalea, 5 - behea).

Hamargarrena.– Farmaziako zuzendariaren ofizio bidez Marta Gaminde Campos andreari jakinarazi zitzaion ezen, Zarauzko farmazia-barrutian bigarren farmazia sortzeko prozedurari dago-kionez, puntuazio altueneko lehiakidea dela, eta ekainaren 27 338/1995 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoarekin jokatu behar duela.

Hamaikagarrena.– 2016ko azaroaren 10ean, Marta Gaminde Campos andreak baimen-eskabi-dea aurkeztu zuen farmazia-bulegoa irekitzeko Zarautzen.

Aurkeztutako agirietan ikusten denez, farmazia-bulego berria helbide honetan dagoen lokalean jarri nahi da: Zarautzen, Gipuzkoa kaleko 68. zenbakian.

Hamabigarrena.– Farmaziako zuzendariaren ofizio bidez espediente honetan interesdun izan daitezkeenei espedientea bidali zitzaien, batetik, espedientean pertsonatzeko, eta bestetik, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Hala egin zen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. eta 76.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Hamairugarrena.– Azkenik, Farmazia-arloa antolatzeko buruak, 2016ko abenduaren 20an, aldeko txostena egin zuen Marta Gaminde Campos andreak aurkeztutako dokumentazioari buruz.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Farmaziako zuzendariak dauka espediente honi buruz ebazpena emateko eskumena; hala ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia-antolamenduko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34. artikuluan eta Osasun Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 195/2013 Dekretuaren 10. artikuluan.

Bigarrena.– Batetik, aurkeztu diren merezimenduak baloratuta, Marta Gaminde Campos andreak izan du puntuaziorik handiena; bestetik, farmaziak sortzeko ezarritako prozedurari dago-kionez, 11/1994 Legearen 34. artikuluan ezarritako eta 338/1995 Dekretuan garatutako xedapenak bete dira; azkenik, dekretu horren 5. artikuluan arabera, lehiakideak agiri guztiak eta eskatutako epean aurkeztu dituela egiaztatu da. Horrenbestez, bidezkoa da interesdunari farmazia-bulegoa irekitzeko baimena ematea.

Dena dela, jardun ahal izateko baimena lortu beharko da, emandako baimenak indarra izango badu; hala ezartzen da 338/1995 Dekretuaren 6. artikuluko 4. zenbakian.

Horregatik guztiagatik, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Marta Gaminde Campos andreari farmazia-bulegoa irekitzeko baimena ematea, Zarautzen, Gipuzkoa kaleko 68. zenbakian, farmazia-bulegoa jar dezan; betiere, berak aurkeztutako agiriak aintzat hartuta.

Bigarrena.– Baimen honek indarra izan dezan, Marta Gaminde Campos andreak jardunean jartzeko baimena aurretiaz lortu beharko du. Baimen hori eskatzeko, lau hilabeteko epea izango du, honako ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta betiere, 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2017ko urtarrilaren 19a, osteguna

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri emango zaie interesdunei; era berean, ohartaraziko zaie honek ez diola amaiera ematen administrazio-bideari, eta, ebazpen honen aurka, egoki iritzitako bestelakoez gain, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dutela zuzendaritza honetan edo Osasuneko sailburuordearen aurrean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 21a.

Farmaziako zuzendaria,  
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.